

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2013ko URTARRILAREN 24an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2013ko urtarrilaren 24an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:
 - 2012ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkura
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 1/2012 kreditu Aldaketaren haserako onespina, hala bada.
4. 2013 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespina ematea, hala bada.
5. Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako diru-laguntza eskaera, hala bada.
6. DINA 7 Kultur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskera, hala bada.
7. 2012 urteko kultur asteko gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.
8. IX. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala"-ren kitapenaren berri ematea, hala bada.
9. Larraulgo Herri Ostatuko zerbitzu publikoaren ustiakuntza, urte betez luzatzeko onespina, hala bada.
10. Larraulgo Agiñezabal Handi baserriaren Sorohaundi zelaian, eraikin bat eraikitzeke baimen eskaera, K.I.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11. Larrunbide erdikoa baserriaren atzekaldean dagoen belar-zuloan konponketak egiteko baimena eskaera, M.O.A.
12. Fakturak eta ordainketak.
13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko abenduaren 20ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

22/2012 Alkatezta Ebazpena, abenduaren 17koa, Donostiako 2. Zenbakiko Kontentzioso-administratibo epaitegira aurkezteko onespina ematea, ebazten duena.

23/2012 Alkatezta Ebazpena, abenduaren 19koa, 2013ko ekaineko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbidetzeko prozedura onestea, ebazten duena.


24/2012 Alkatezta Ebazpena, abenduaren 28koa, Larraulgo Udaleko langileek egindako 2013ko ekaineko aparteko soldata aurreratzeko eskaerak onartzea, ebazten duena

25/2012 Alkatezta Ebazpena, abenduaren 30koa, Izapidetu dadin gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentzia egiteko espedientea, ebazten duena.

01/2013 Alkatezta Ebazpena, urtarrilaren 2koa, 1/2013 Kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

02/2013 Alkatezta Ebazpena, urtarrilaren 2koa, 1/2013 Kreditu aldaketarako espedienteari onespina ematea, ebazten duena.

03/2013 Alkatezta Ebazpena, urtarrilaren 22koa, hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

04/2013 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 24koa, 2012ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

01/2012 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Udala honen 2012 ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri du, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola.

Era berean, Kontuen Batzorde Informatzaileak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
120.120.00.01	Funtzionarien oinarr. ordainketak	38.000,00	2.500,00	35.500,00
227.129.00.07	Aholkularitza: azterketa, lan tekni	8.000,00	3.400,00	4.600,00
643.120.00.01	Ikerketa, azterketa, proiektuak	30.000,00	6.329,32	23.670,68
GUZTIRA ...			12.229,32	

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
131.510.00.01	Aldarteko laboralen ordainketak	5.500,00	871,82	6.371,82
160.510.00.01	Gizarte Segurantza. Pertsonal laborala	5.000,00	1.598,83	6.598,83
163.120.00.05	Udal langileen bizi aseguruak	450,00	181,46	631,46
210.510.00.01	Azpiegitura eta ondasun gastuak	12.000,00	1.788,40	13.788,40
210.510.00.02	Azpiegitura gastuak: obrak	2.000,00	195,98	2.195,98
212.433.00.02	Azpiegitura gastuak: argitegi publikoa	500,00	426,07	926,07
220.120.00.01	Material Arrunta ez-inbentagarria	2.500,00	72,96	2.572,96
221.120.00.01	Argi hornidura: Zerbitzu Orokorra	5.000,00	3.676,84	8.676,84
221.433.00.01	Argi hornidura: Argiteri Publikoa	6.000,00	1.097,57	7.097,57
221.120.00.03	Gas hornidura: Zerbitzu Orokorrak	2.500,00	778,30	3.278,30
226.460.00.06	Iharduera Sozio-kultural gastua	4.000,00	132,89	4.132,89
226.120.00.99	Bestelako hainbat gastu	100,00	239,29	339,29
227.450.00.04	Kirol Gastuak	1.600,00	233,00	1.833,00
230.120.00.01	Pertsonalaren dieta, lokomozio...	300,00	227,03	527,03
231.111.00.01	Goi-karguen dieta, lokomozio, ...	18.000,00	55,20	18.055,20
422.120.00.01	Beste entitateei ekarpenak	21.000,00	385,68	21.385,68
480.120.00.01	Partikularrei aportazioak	800,00	268,00	1.068,00
GUZTIRA ...			12.229,32	

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzailatza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea.


LAUGARREN PUNTUA

2013 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2013 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espediente, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2013ko urtarrilaren 21ean egindako txostenean dioena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENA.- Larraulgo Udaleko 2013 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 310.750,00 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK


I. Kap. PERTSONAL-GASTUAK	68.150,00
II. Kap. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	98.100,00
III. Kap. FINANTZA-GASTUAK	2.500,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	67.000,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK	38.500,00
VII. Kap. KAPITAL TRASFERENTZIAK	7.500,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZARIOAK	29.000,00
GUZTIRA GASTUAK	310.750,00

SARRERAK

I. Kap. ZUZENEKO ZERGAK	45.900,00
II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	5.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	44.900,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	204.455,00
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	5.050,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	5.445,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	0,00
GUZTIRA SARRERAK	310.750,00

BIGARRENA.- 2013ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAUL,ERNIO, LARRAUL MENDI LASTERKETARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, datorren martxoaren 17an ospatuko dela.

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeko, Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera eta Hezkide Eskolako duxak dohain erabiltzeko eskaera egiten diola A.A.J. jaunak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2013 urteko aurrekontuetan aurrikusita dagoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, Hezkide Eskolako duxak dohain erabiltzeko baimena onestea, Larraulgo Udalak eta Hezkide Eskolak duen hitzarmenaren babesean.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri A.A.J. jaunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

DINA 7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2013 urterako diru-laguntza eskaera, euren jarduera aurrera eramateko.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- DINA 7 Elkarteari 1.000 eurotako diru-laguntza ematea, euren jarduera aurrera eramateko.

BIGARRENGOA: 1.000,00 eurotako gastua onestea, 2013 urteko aurrekontuetako 422.120.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA

2012 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko azaroak 26tik abenduaren 2ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

GASTUAK:

-Kartelak	150,00
-Egutegia	600,00
-Elkartea	16,10
-Afarria(bakoitzak ordaindua)	265,79

Ekintzak

-Bakarrizketa	200,00
-Kimika sukaldean	150,00
-Hitzaldia Tapia	150,00
-Hitzaldia Nafarroa	150,00
-Enologoa eta txakolina	180,00
-Txakolina eta janaria	34,00
-Beltran	750,00

Mus Txapelketa


-Arkumea	74,25
-Elkartea	49,50

Haur merienda eta eskulanak

-Elkartea	10,45
-Janaria	43,40
-Eskulanak	87,50

Talo jana

-Urdaia-Gazta	110,75
-Txorixoa	79,00
-Artirina	34,00
-Gaztainak	118,50
-Txokolatea-freskagarriak	18,70
-Ogia	12,00
-Elkartea	161,23
-Saskia	75,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GUZTIRA: 3.520,17€

SARRERAK:

-Udalaren ekarpena	2.000,00
-Saski boletoak	215,00
-Mus txapelketa	100,00
-Afarria	274,75
-Egutegiaren salmenta	15,00

GUZTIRA: 2.604,75€

BALANTZEA: -915,42€

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2012ko aste kulturalako gastuen kitapena onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

IX. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ren KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, IX. Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzaren kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 799,98 euro izan zen eta kostatu dena, Larraulgo kasuan 856,66 euro izan da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak IX. Klasikoa, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA, URTE BATEZ LUZATZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko uztailaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Yuqueri Pedreira Martinez andreari eman zitzaioela, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik aipaturiko erabakiaren arabera Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu administratiboa sinatu zela, Yuqueri Pedreira Martinez andrearen eta Larraulgo Udalaren artean, 2012ko uztailaren 21ean. Kontratuaren HIRUGARRENGO KLAUSULAN datorren modura, “emakidaren epea, baldintza administratibo partikularren pleguak 2. klausulan dion bezala, 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu ondoren bi aldeek adostasunarekin beste urte betean luzatu daiteke kontratua, eta honen amaieran beste hiru urte eta erdirako gehienez”.

Ikusirik aipaturiko lehen sei hilabeteak igaro direla, Larraulgo Udala ados dagoelarik kontratua urte betez luzatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Yuqueri Pedreira Martinez Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua urte betez luzatzea. Baldintza administratibo partikularren pleguen 2. Klausua jarraituz.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Yuqueri Pedreira Martinez andreari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA


LARRAULGO AGIÑEZABAL HANDI BASERRIAREN SOROHAUNDI ZELAIAN, ERAIKIN BAT ERAIKITZEKO BAIMENA ESKAERA, K.I.

Ikusirik K.I.M. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Agiñezabal Handi baserriaren Sorohaundi zelaian, eraikin bat eraikitze baimena eskaera egiten duen, horretarako Iker Gomez Iborra arkitektoak sinatutako “Egiteko proiektu” bat aurkezten du, Euskal Herriko Elkargo Ofizialeko Gipuzkoako Ordezkaritzan 2013ko urtarrilaren 18an bisatua izan dena.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 22an, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO AGIÑAZABAL-HAUNDI BASERRIAREN LURRETAN ARTISAUTZARAKO ERAIKIN BAT EGITEKO ESKAERARI TXOSTENA

KARLOS IRAZU MUÑOIA jaunak, Larraulgo Agiñazabal-Haundi baserriaren lurretan eraikin bat egiteko baimena eskatzen du, Iker Gomez Iborra arkitektoak sinatutako



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“egiteko proiektu” bisatua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

2012-ko azaroaren 17-an basogintzako ustiategi bati loturiko eraikin osagarri baten “egiteko proiektua” ekarri zen Larraulgo udaletxera, lursailaren jabearen baimenarekin batera.

Hurrengo egunean, proiektuari aurre-begirada bat eman eta zenbait akats aurkitu ondoren, aldaketa batzuk egitea gomendatu zen.

2013-ko urtarrilaren 21-ean dokumentazioa aldatua aurkezten da, Jose Ignacio Irazu lursailaren jabearen adostasun berri batekin.

Egiteko Proiektuaren helburua, Sorohaundi deituriko lursailean basogintzako baliabideei loturiko artisautzarako eraikin bat egitea da.

Eraikina, 10mx14,80m-ko angeluzuzeneko forma duen oin bakarrekoa izango dela esaten da kanpoaldean 98,40m²-ko estalitako eremu bat duelarik. Teilatua teila gorrizkoa izango da, bi isuri izango ditu bere maila %35-a baina txikiagoa izanik. Gailurraren altuera 6m-koa izango da. Fatxadaren materiala kolore argiko emokadura edo “ revoco ” izango da. Aldatutako proiektuaren aurrekontu berria 22.250,26€ da.

Eraikina Larraulgo lur ez hiritargarrarian kokatu nahi da, konkretuki D.20zonaldean.

Lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzi kontuetan jarduketak koordinatzen dituen azaroaren 24-ko 82/1998 Foru Dekretua jarraituz, Larraulgo udalak dagokion txostena eskatu zuen Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentura. 2012-ko apirilean erantzuna jaso zen, nekazaritzarekin loturik ez duten eraikinek Foru Aldundiko departamenduaren alde aurreko baimena behar ez dutela esanez.

Larraulgo Arau Subsidiarioen 64º artikuluan lur ez hiritargarrarian baimendu daitezkeen eraikinen zerrenda azaltzen da.

Artículo 64.- Construcciones que pueden autorizarse

Tomando como referencia normativa el régimen de edificación y de uso de las zonas de calificación global y pormenorizada, las construcciones que pueden autorizarse en el Suelo No Urbanizable son:

a) Edificios o instalaciones destinados a la explotación agraria-agrícola, ganadera o forestal-, incluyendo en este apartado:

-La reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

-Sustitución de caseríos existentes


-La construcción de nuevos caseríos

-Instalaciones y edificios complementarios destinados a la explotación agrícola

-Granjas y explotaciones ganaderas intensivas.

-Unidades agrícolas especializadas (invernaderos, viveros)

-Unidades agrarias no profesionalizadas (huertas)



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

b) Industrias agrarias y forestales no vinculadas ala explotación del territorio (serrerías).

Basogintzako baliabideei loturiko eraikin hau lur ez hiritargarrían baimendu daitekeela ulertzen da (egur artisautza jarduera osagarri bat duen arbola eta makinén biltegia)

Lur ez hiritargarríean kokatu behar diren eraikinen baldintzak eta kanpo itxura 47 eta 47 artikuluetan arautzen dira:

Artículo 47.- Condiciones de edificación.

.-Las edificaciones se ajustarán en cuanto a su volumetría y configuración general a las tipologías edificatorias de las construcciones existentes en Larraul. Responderán a una volumetría simple, con la cubierta inclinada a 2,3 o 4 aguas y con pendientes no superiores al 35%.

.-Emergiendo sobre dicha cubierta se autorizará la ejecución de chimeneas y otras instalaciones de altura no superior a 1,20mts.

.....

Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

.-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

.-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

.-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

...


Proiektuaren arabera puntu hau betetzen da.

Urbanizazio baldintzak 49º artikuluan datoz eta honen arabera, eraikin berriaren sustatzailearen kargu izango dira erabilerak behar dituen azpiegitura guziak. Ur beltzak sortzen dituen erabilera bat ematen bada, dagokion fosa septikoa jarri beharko da hondakin uren arazketa egiteko.

Artículo 49.-Condiciones de urbanización y tratamiento del entorno

.....

.-Las parcelas en las que se autorice la implantación de nuevas construcciones –con excepción de las que destinen a usos agrarios no profesionalizados y a equipamientos e infraestructuras de servicios en los que esta exigencia resulte innecesaria- deberán disponer de acceso rodado así como de abastecimiento de agua, sistema de depuración de aguas negras y vertido de las mismas, suministro de electricidad y alumbrado



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

exterior. Si alguno de estos servicios no existiese o no reuniera las condiciones debidas, el solicitante deberá garantizar la implantación o mejora del mismo a su cargo, pudiendo el Ayuntamiento en caso contrario denegar la licencia solicitada.

50º artikuluaaren arabera, erabilera berrira doan bidea eskatzailearen kontura izango da.

Artículo 50.- Carreteras y caminos rurales

.....El Ayuntamiento podrá mejorar y ampliar la red de carreteras y caminos rurales existentes, bien directamente (mediante la formulación de proyectos de obras ordinarias correspondientes que llevarán implícita la declaración de obra pública a los efectos de la expropiación de los terrenos afectados), bien condicionando la autorización de nuevos usos y edificaciones que se sirvan de dicho viario al cumplimiento de los requisitos de mejora y ampliación necesarios.

Goi-tentsioko 223/2008 dekretuaren arabera, argindarraren kableari gorde beharreko distantziak bi hauek izango dira; 6m jendearen eskura dagoen puntu bakoitzari edo 4m eskura ez dauden puntuei.

Basogintzari loturiko eraikin honek, orain arte esandakoaz aparte, 73º artikulua markatzen duena bete beharko luke.

Artículo 73.- Industrias agrarias no vinculadas a la explotación del territorio

Se consideran como tales las industrias agrarias que deban implantarse en el Suelo No Urbanizable no vinculadas como usos auxiliares a una explotación agraria, tales como serrerías y viveros de producción de plantas y flores en los que la plantación no se produzca sobre el terreno.

a)Parcela mínima: 5.000m²

b)Ocupación máxima:

-.10% para edificaciones estables

-.30% para espacios de maniobra o almacenamiento

c)Altura máxima: 7mts.


d)Separaciones:

-.500mts. del área urbana, salvo que el Reglamento de Actividades Molestas, Nocivas, Insalubres o Peligrosas exigiere una distancia mayor.

-.No menos de 100mts. De cualquier vivienda rural ajena a la propia granja.

-.10mts. como mínimo al lindero de la propia parcela.

Sorohaundiko lursailak 41.507m² ditu (>5.000m²). Planteatzen den eraikinak 550m-ko distantzia bat gordetzen du Larraulgo kaskora (>500m). Ondoko landa-etxebizitzaren artean mantendu behar den distantzia planoaren arabera 92,50m da. Ez da araudiak eskatzen duen 100m-ko tartea gordetzen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Suteen neurriei dagokionez, Kode Teknikoaren sutearen aurkako neurrien SI dokumentuak basoari gorde behar zaion distantzia 25m-koa izango dela esaten da. Eraikinean 21A-113B klaseko 2 extintore egongo dira.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Ingurumenaren lege berriaren arabera (Ley 3/1998, Protección Medio Ambiente País Vasco modificada por L 7/2012) aurretiazko komunikazio bati loturiko jarduera baten aurrean aurkitzen garenez, obra bukatzean teknikari eskudun batek sinatutako dagokion jarduera proiektua aurkeztu beharko da udaletxean.

Aurrekoa betetzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

Ondoren Alkate-lehendakariak hitza hartzen du adierazteko bera ados dagoela obra baimena ematearekin, nahiz eta Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen den, eraikinak ez dituela errespetatzen ondoko landa-etxebizitzaren artean mantendu behar den distantzia. Alkateak argudiatzen du eman behar den baimena berezia dela 100 metrotara argi indarraren postea dagoelako eta beraz ezin duela 100 m-tako distantzia hori bete. Alkateak ematen duen argudioarekin bertaratuak ados azaltzen dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Karlos Irazuren abstentzioarekin, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: K.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onartzea, hau da, Larraulgo Agiñazabal-Haundi baserriaren lurretan eraikin bat egiteko obra baimena ematea, Iker Gomez Iborra arkitektoak sinatutako “ Egiteko proiektu”-aren arabera, zeina, Euskal Herriko Elkargo Ofizialeko Gipuzkoako Ordezkaritzan 2013ko urtarrilaren 18an bisatua izan dena.

BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Udal Aholkulari Teknikoak, 2013ko urtarrilaren 22an egindako txostenean jasotzen direnak, Ondoko landa-etxebizitzaren artean mantendu behar den distantziarena ezik.

BALDINTZA OROKORRAK

Obrak hasi aurrekoak.




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Obra hasi aurretik udal honetan aurkeztu beharko dira, idatziz, obraren zuzendaritza eramango duen taldea osatzen duten teknikarien izenak, helbideak eta telefonoak. Teknikariaren batek bere kargua uzten badu, obra ezingo da jarraitu Udal honi teknikari berriaren datuak ekarri arte.
- Eraikitze lanak hasi aurretik obra zuzendariak eta udaleko teknikariak erreplanteo akta izenpetu beharko dute.
- Eraikitze lanak hasi aurretik udal zerga ordaindu beharko da.
- Eraikitze lanak, aurkeztutako proiektuarekin eta udal baimenean ezarritako baldintzekin bat etorri behar dira. Obrak sei hilabeteko epearen barne hasiko dira, exekuzio proiektuari onspena eman zaiola jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita. Bestela baimenaren balioa galdutzat emango da.

Obren exekuzio ematen den bitartean

- Obrak proiektuarekiko edozein aldaketa izango balu, aldaketa horrek aurretiazko udal baimena beharko luke.
- Eraikitze lanetan beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu beharko dira bertan ari diren langileei eta hirugarren pertsonen kalterik ez eragiteko.
- Obren egikaritzaren ondorioz itxidurarik edo bide publikoan oztoporik ipiniko balitz modu egokian eta garbian adierazi beharko dira eta beharrezkoa izango da aurretik udalari jakinaraztea.
- Hondakinen garraioa burutzerakoan segurtasun neurriak hartu beharko dira soinuak, hautsa eta materialen galera ekidinez.
- Baimen honen eskuratzeak ez du baztertzen egin beharreko obrak eragin dezakeen erakundeen baimen edo lizentzien eskuratzea, beharrezkoak diren ekintzak ezin dituelarik zilegi egin edo salbuetsi.
- Udal Teknikariak edozein unean obraren garapena aztertu ahal izango du, exekutututako obra onartutako eskaera edo proiektuari, obra baimenari eta indarrean dagoen araudiari egokitzen den ikusteko. Emandako baimenaren kopia bat eta proiektu teknikoa egon beharko dute obran une oro.
- Obrak amaitzeko epea 12 hilabetekoa izango da obra baimena eman zen egunetik kontatzen hasita.
- Udalak emandako obra baimena hurrengo kasuetan iraungitzat emango da:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- a) Baimena notifikatzen denetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean obrak hasiko ez balira.
- b) Obrak sei hilabetetan geldituko balira.
- c) Obrak aurreikusitako epean amaituko ez balira.

Obrak amaitzerakoan

- Obra baimenaren titularrak obra amaitzerakoan obra horien inspeksioa eskatu beharko du, aipaturiko eskaerari hurrengo dokumentazioa erantsiko diolarik:
 - a) Obraren Zuzendaritzaren azken ziurtagiria, Arkitektu Zuzendaritzagatik izenpetua eta Euskal Herriko Arkitektuen Elkarte Ofizialagatik bisatua, obraren exekuzioa proiektuaren arabera izan dela eta jarri zitzaizkion baldintza guztiak bete direla egiaztatuz eta obraren muntaia zenbatekoa izan den zehaztuz.
 - b) Aldaketarik egon baldin bada, obra amaituta geratu den egoerari buruzko planoak.
- Eraikinak okupatu eta erabiltzen hasi aurretik lehenengo erabilerako baimena eskatu beharko zaio udalari eta dagokion dokumentazioa aurkeztu, ondorengo hain zuzen ere:

Memoria eta aldaturiko planoak.
Obra amaiera, dagokion teknikariak firmaturikoa.
Hiri Kontribuzioan alta eman izanaren agiriak.
Fatxadetako argazkiak.
Obraren behin betiko likidazioa.


-Udal honetan jarduera proiektua aurkeztu beharko du, eraikinean egin behar den jarduera martxan jarri ahal izateko.

Bestelako xedapen orokorrak

- Obra baimena ematen da hirugarrenen eskubideen kalterik gabe eta jabetza eskubideraren kalterik gabe. Ezin izango da baimen hau erabili jardueraren egikaritzan onuradunaren erantzukizun zibila edo penala gertatuz gero, erantzukizunetik salbuetsi edo erantzukizuna murrizteko.
- Obraren egikaritzan sortutako kalteez baimen honen titularrak erantzungo du.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: I.A.L. jaunari erabaki honen berri ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA

**LARRUNBIDE ERDIKOA BASERRIAREN ATZEKALDEAN DAGOEN
BELAR-ZULOAN KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA ESKAERA, M.O.A.**

Ikusirik M.O.A. andreak eginiko eskaera, non Larrunbide Erdikoa baserriaren atzekaldean dagoen belar-zuloan konponketak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 18an, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“LARRAULGO LARRUNBIDE-ERDIKOA BASERRIAREN BELAR ZULOAREN
TEILATUA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

M.O.A. andreak, Larraulgo Larrunbide-erdikoa baserriaren atzekaldean dagoen belar zuloaren teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen deskribapena eta aurrekontu orokor bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskarian, eraberritu nahi den teilatua txapa gorrizkoa izango dela esaten da. Eraikinaren barruan forjatu berri bat egin nahi dela esaten da ere. Bi lan hauen aurrekontua 2.076€ da.

2013ko urtarrilaren 17-an bisitaldi teknikoa egiten da eraikinaren gaur egungo egoera ikusteko. Eraikinak 16m²-ko azalera eraikigarri bat du, oin bakarrekoa da eta estalkia falta zaio. Batazbesteko altuera 5,40m-koa da eta aterik gabeko bi zulo ditu, bakoitza maila ezberdin batean. Goiko zuloaren itxitura faltak, erortzeko arriskua dakar.


2006-ko Lurzoruaren Legearen 199 artikulua higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak arautzen ditu.

Artículo 199. El deber de conservación y rehabilitación

1.Los propietarios de terrenos, construcciones, instalaciones y edificios tienen el deber de mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad, ornato público y decoro, realizando los trabajos y las obras precisas para conservarlos o rehabilitarlos, a fin de mantener las condiciones requeridas para la habitabilidad o el uso efectivo.

Larrunbide-erdikoa baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago. Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º artikulua.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, eta eraikinaren bolumena aldatzen ez bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.O.A. andreak eginiko eskaera onestea, hau da Larraulgo Larrunbide-Erdikoa baserriaren belar zuloaren teilatua eraberritzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.


BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

JOSE GODO TORRES	762,30
KIROLZER	135,60
ARATHERMIK	145,20
FERRETERIA BARBE	29,54
BYM COMUNICACION APOYO TECNICO	308,55
MANPEL	602,86
PASKIN SEINALIZAZIOAK	122,51
EBA ERKIZIA	397,49



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

AITZOL	40,60
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	408,17
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.327,95
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.759,34
UNION FENOSA	187,60
UNION FENOSA	53,24
UNION FENOSA	187,22
UNION FENOSA	499,01
UNION FENOSA	155,10
UNION FENOSA	340,81
UNION FENOSA	318,73
UNION FENOSA	69,76
UNION FENOSA	142,84
UNION FENOSA	516,46
EUSKALTEL	0,73
MOVISTAR	20,99
MOVISTAR	132,34
MOVISTAR	17,14
MOVISTAR	104,13
MOVISTAR	81,50
REPSOL	250,82
REPSOL	623,19

Udalbatzarrak **ahoko batez** hurrengoa,
ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.741,72** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**


12.1. LARRAULGO HERRIAN OSPATZEN DIREN FESTETAN POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik I.F.N. eta R.E.F. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duten eskuz egindako bitxiak, karterak etab. saltzeko postu bat dutela eta Larraulgo herrian ospatzen diren edozein festetan aipaturiko postua jartzeko baimena eskaera egiten duten.

Batzarkideen artean, adostasun falta dagoenez aipaturiko postua jartzeko baimenena emateari buruz, gaia bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:

-Aldeko botuak: 5 (Mujika, Jauregi, Barandiaran, Tejeria eta Aranzabal, Alkate eta zinegotziak)

-Kontrako botua: 1 (Irazu zinegotzia)



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Abstentzioa: 1 (Usandizaga zinegotzia)

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo absolutoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.F.N. eta R.E.F. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo herrian ospatuko diren edozein festetan, eskuz egindako artikulua saltzeko, postu bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: I.F.N. eta R.E.F. andreei jakinaraztea, Larraulgo Udalari jakinarazi beharko diotela aldez aurre, postua jarri behar duten egunak, kokalekua zein den jakitera emateko.

HIRUGARRENA: Interesatuei erabaki hauen berri ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA